

PRENTSARAKO TXOSTENA

Osteguna 12, 11etan Donostiako Udaletxean.

Gaia: Porrontxo Jaiak 2010

- Egoera. Jai Batzordearen proposamen berria egoera desblokeatzeko.
- Ostalarien eskabidea.
- Aurtengo Egitaraua.
- I. Sagardo Eguna.
- 30. urteurreneko abestia eta bideoklipa.

EGOERA:

Jakingo duzue azken urteetako tirabiren ostean, aurten inoiz baino egoera txarragoa dugula Udalarekin.

Kezkatuta gaude, alkateak eta Denis Itxasok geure aurka duten jokabide gogorrarekin. Debekurik ez dela egon diote, baina egia da, inoiz baino gogorrago ekin dutela geure aurka. Eztabaida dialektikoak alde batera utzita, ordutegiak eta bizilagunen kexak aitzakia hartuta, gaueko ekitaldi oro, baita egunez ere azpiegitura oro erabiltzea ere debekatu digute.

Azken urteotan inkomunikazio handia izan dugu bi aldeek eta elkarrizketarako prestutasuna agertu badugu ere, ez dute ahaleginik egin akordiorik erdiesteko ez-eta gurekin garaiz bilkurak egiteko ere. Iaz, festak hastear zirela, eurak alde bakarrez hartutako erabakiz zehaztutako ordutegiak bete arazi nahi izan zizkiguten, hori zioen orria sinatu ezean diru laguntzak eta baimenak kentzeko mehatxupean. Horretan oinarritu dira aurtengo debekuetarako.

Geure asmoa da erdi bide batera heltzea eta horretarako zarataren eta ordutegien aferan apirilean aurkeztutako proposamenari aldaketak egin eta aurkeztu dugu, beti ere, festa garaia dela kontuan hartuta zehaztutako ordutegiak kontuan hartuta. Aurten gainera, ziurrenik, Zinemaldia ere garai berean izango da, eta harrigarria iruditzen zaigu, nola halako ekitaldiak antolatzerakoan ostalariei ordutegia luzatzen zaien eta Egiako festetan urtean bi gau soilik direla kontuan hartuta halako trabak izatea. Honekin lotuta, esan, tabernariak ostalarien elkartearekin harremanetan direla ordutegien aferan esku har dezan.

PORRONTXO JAIETAKO KOADRILEN BATZARRAREN PROPOSAMENA:

Azken urteotako esperientzia kontuan hartuta, bada denbora auzoko jaiak hobetzeko eta hauek sor ditzaketen eragozpenak murrizteko ideiak lantzen hasi ginenetik. Porrontxoak Jaien proposamena honakoa da:

1. Tejeria kaleari dagokienez:

> Jai gune honetan aldaketa nabarmena proposatzen dugu. Azken urteotako esperientzia kontuan hartuta, txosna guztiak kentzea proposatzen dugu Plaza Berrin gune berria sortzeko. Plaza honetan karpa bat jarriko genuke. Karpa espazio bilduagoa da txosnekin alderatuta eta soinu maila nabarmenki baxuagoa da. Tejerian txosna bakar bat utziko genuke eguneko egitarauari, hau da, koadrilen egitarau gastronomikoari lotutakoa. Gaez ez zen zabalik egongo alegia.

2. Soinu mailari dagokionez:

Soinu mailaren kudeaketa gardena izan dadin, adostutako batzorde bat sortzeko konpromisoa hartzen dugu. Batzorde honen partaideak hauexek izan daitezke: "Porrontxo Jaiak", Bizilagunen Elkarteak, Udaltzaingoa eta Donostia Kultura. Batzorde hau egunero bilduko litzateke jarraipena egin eta sor daitezkeen arazoei irtenbide emateko.

Txosnetako musika ekipoetan soinu mugatzaileak edo limitadoreak jartzeko konpromisoa hartzen dugu.

Dantzaldietako, kontzertuetako naiz txosnetako soinuak ekitaldia burutzen den lekuaren eta orduaren arabera beharko luke. kontuan hartuko da Plaza Berri gunekoak Plaza Haundikoak baino baxuagoa izan beharko lukeela, eta orduak aurrera egin ahala, pixkanaka gutxitu beharko litzakeela bizilagunen atsedena errazteko.

Edozein kasutan, Plaza Berri eta Plaza Haundiko soinu bolumenak aurreko urteotakoa baino baxuagoa beharko du izan.

Festetako ordezkariak eta jarraipen batzordeak soinuari buruz aholkatutakoak beteko direla bermatzeko, berbenekin, musika taldeekin eta soinu teknikariek kontratu bat sinatzeko konpromisoa hartzen dugu.

Kontratu honek hainbat klausula lituzke. Esate baterako, soinu

mailari buruz emandako aginduen urratze larrien kasuan emanaldia ez litzaieke ordainduko.

3. Ordutegiei dagokienez:

Osteguna:

Plaza Berri (karpa): Itxiera ordua 01:00, orain lau urte Koadrilen Batzarrak erabaki zuen moduan.

Plaza Haundi : Dantzaldia ospatuko da eta txosnak zabalik izango dira 02:30ak arte, 03:00ak arteko malgutasunarekin txosnak pixkanaka ixteko. 02:30etan txosnetako musika kenduko egingo da eta ordu erdi izango dute pixkanaka ixteko.

Ostirala:

Plaza Berri (karpa): Dantzaldia edota kontzertua 03:30etan bukatuko dira. Txosnak 05:00etan musika kenduko dute. Musika kenduta, ixteko ordu erdiko tartea izango dute 05:30ak arte.

Plaza Haundi : Dantzaldia 04:30ak arte luzatuko da. 05:00etan txosnek musika kenduko dute. Musika kenduta, ixteko ordu erdiko tartea izango dute 05:30ak arte.

Larunbata:

Plaza Berri (karpa): Dantzaldia egongo da 04:30ak arte. Txosnek 05:00etan kenduko dute musika. Musika kenduta, ixteko ordu erdiko tartea izango dute 05:30ak arte.

Plaza Haundi : Dantzaldia eta txosnak egongo dira 05:00ak arte. Musika kenduta, ixteko ordu erdiko tartea izango dute 05:30ak arte.

Ordutegi hauek “gehieneko muga” dira. Beti ere, lehenago bukatuko lirateke baldintza kaskarrak egongo balira (eguraldi txarra, jende gutxi, etab)

Zerrendatutako konpromisoak **Donostiako auzoetako jai batzordeen funtzionamendu araudiaren arabera** hartutakoak direla azpimarratu nahi dugu, berriz ere, eta **hartutako konpromiso hauek bete ezean, Udalak**

emandako diru laguntza eta azpiegituren kostua itzultzeko konpromisoa hartzen dugu. Hau da, zerrendatutakoa bete beste aukerarik ez dugu. Hori da gainera, geure asmo eta nahia.

Hau esanda, ziur gara eta konbentzituta gaude ordutegi hauek egokiak direla eta onargarriak direla. Bizilagunen oniritzia edo onarpena dute, orain bi urte bildutako bi mila sinadurak frogatzen dute. Gainera, kontuan hartu beharra dago, urteko gainerako sasoietan ez dela beste ospakizunik egiten gauez, danborrada salbu. Azken batean, urte osoko hiru egunez bakarrik ari gara.

Bukatzeko, nabarmendu nahi dugu, beharrezko izanez gero bizilagunen sinadura bilketa egiteko prest gaudela beste behin ere, bene-benetan festek eta Batzorde antolatzaileak Egiako bizilagunen babesa dutela frogatzeko. Horren erakusgarri auzoko ostalari eta tabernarien gehiengoak emandako babesa atxikitzen dugu. 112 dira guztira.

OSTALARIAK:

Egia auzoko tabernariok ostalaritza arloko kezka larriak bultzaturik Porrontxo Jaiak udaletxeren eskutik pairatzen ari diren debeku eta jazarpenaren aurrean publikoki erakutsi nahi dugu gure protesta ozena, lejitimotzat hartzen ditugun gure interesen kontra zuzen-zuzenean jotzen dutelako.

Izan ere, duela 30 urte sortu zirenetik Porrontxo Jaiak, Egia auzoko jai bakarrak, elkarbizitza eta jai ereduako egundoko erreferentea izan dira. Auzoko zein kanpoko milaka pertsona hurbildu dira, urtero-urtero, jai egitaraua dastatzea, eta urte hauetan guztietan behin ere ez da gertatu jazoera tamalgarririk. Jai Batzordea izan da jagole eta bermatzaile arduratsua, eta dakigunez, urte luzeetan udal jai batzordearekin izan duen harreman normalizatua horren lekuko da.

Horregatik guztiz ulergaitza da udaletxeak hartu duen jarrera zorrotza eta ukatzailea: jaiak ospatzeko baimen guztien ukazioa, oholtza eta txosnak jartzeko debekua eta egiatarron nahia eta jai gogoa ezin hobeto laburbiltzen duen jai-egitaraua burutu ahal izateko argindarra eta ura bera ere ez emateko udal erabakia.

Horrez gainera, debeku horiek kalte izugarria egiten digute ekonomikoki. Alegia, Donostiako beste auzoetan bezala, jaien testuinguruan Egiara hurbiltzen diren milaka bisitarien kontsumoa ezinbesteko diru-sarrera dugu

gure negozioen bideragarritasuna lortzeko. Donostiako erdialdean ez gaudenontzat, eragin txikia daukate Jazzaldia, Aste Nagusia edota Errealaren igoeragatik udaletxeak arautzen duen itxiera ordutegiaren berandutze baimenak. Gure negoziak ez daude Donostiako jai erdigune ofizialaren itzalpean. Horregatik, auzoetako jaiek, herri arnasa eta bere erakargarritasuna lehen mailako osagaiak izanik, laguntzen gaituzte gure negozioen garapenean. Dekretuz zapuztea, Porrontxoetako Jai Batzordearekin akordio zuzena eta alde guztietarako onargarria lortze aldera biltzeko ukoa, jarrera onartaezinak dira, eta kalte handia ekartzen diete gure enpresa interesei, zeren kontsumo jaitsierak eta presio fiskalaren gogortzeak kinka larrian jartzen baitute gure bizimodua.

Argudiatutakoari erreparatuz, Porrontxo Jai batzordea eta udal jai batzordearen arteko elkarrizketari bide emanez, Egiako jaiek aurten ere udal baimena eta bitarteko materialak izan ditzaten eskatzen dugu. Horrekin batera, jaiak direla kausa gainerako auzoetan udalak baimentzen duen itxiera ordutegiaren zabaltzea eskatzen dugu. Labur beharrez, Donostian ezartzen den hiri garapenak eta jai ereduak Egian bizi eta lan egiten dugunon interesak kaltetu ez dezaten erreibindikatzeko dugu.

SINTOTXA MUGIMENDUA:

Udalarekin tira birak ez dira atzoko kontua, baina aurtengoan ikusitakoak ikusita, Porrontxo Jaien defentsan eta Udalaren jarrera inposatzailearen aurka Sintotxa mugimenduaren sorrera garaipen handia izan da.

Hainbat eta hainbat ekimen egin ditugu kalean, Donostiako eskultura guztiak sudurra jarrita agertu zirenekoa esate baterako, baina indar handiena sarean lortu dugu, dozenaka lagunek atxikimendua agertu digute mugimenduaren ikur bilakatu den sudurra jarri eta argazkia igorrita. Ezagunak direnak ere hala egin dute, Realeko zenbait jokalarik, El Drogas eta Doctor Deseo taldekoena esate baterako.

Sintotxa Mugimendua indar biziz dago beraz, eta jai herrikoi eta partehartzaileen defentsan segiko du baita aurrerantzean ere. Informazio gehiago: www.porrontxojaiak.org

ABESTIA:

Eta festen izpirituaren aurrerapena, SUDUR KUMEEN KUNBIA!
Porrontxoen izaera aldarrikatu eta aurten bizi dugun egoera salatu dute
100% Gourmet taldeko hip hop abeslariak eta horretan lagun izan dituzte,
Adrian "Mal de Ojo", Izarne Zelaia bertsolaria eta Sorkun abeslaria.

Erritmoa Basanabasarena da eta aire instrumentua Urtzi Aizpurua.

Laster aterako da gainera, SUDUR KUMEEN KUNBIA! Bideoklipa. Urtetako irudiak eta Porrontxokume super heroien abenturak eta kalenturak oinarri hartuta.

Sartu **HYPERLINK** "<http://www.porrontxojaiak.orgen>" www.porrontxojaiak.orgen eta jaitsi ezazu abestia.

EGITARAUA:

BADATOZELA, BADATOZELA.... PORRONTXOAK!!!! Ze uste zenuten ba, festarik gabe geratuko ginela ala?!30 URTEURRENA OSPATZEKO PORRONTXO MUNDIALAK ANTOLATU DITUGU

LARUNBATA11 KONPARTSAK ETA AKELARREA

OSTEGUNA 16 TXUPINAZOA ETA KOADRILEN IGOERA MUNDIALA. AURTEN KARRO TXAPELKETA!

OSTIRALA 17 HAUR ETA GAZTE EGUNA (denona alegia)

LARUNBATA 18 SAGARDO EGUN MUNDIALA!

IGANDEA 19 EUSKAL JAIA ...eta askoz ere gehiago...

Egitaraua osorik kartelean ageri da. Aipatu behar dugu gainera, Egiako naiz Egiarekin lotura duten artista askok bat egin dutela festekin eta elkartasunez, musu truk euren ikuskizunak eskainiko dituztela. Denboraz larri ibili gara ordea eta aurrerago iragarriko ditugu egitarauan egingo ditugun aldaketak, dena den hauek dira ikuskizunak:

Taldeak: Surfin Kaos, Lobo Elektriko, Xabi Señor No eta laguntzaileak eta Hotel.DJak: Guantxe, Patxi Astrozonbies, Gonzalo NCC, Irazu Discipulos. Bestelako ikuskizunak:La Eskalera Poesika, Sabur Snob

Antzerkia: Pintzel zen, Eguzkimore erraldoia, adin guztientzat, Saharako jaima adjektibatzailea, adin guztientzat, Lorearen Nahia, Dantza ikuskizuna, La Bañera. Ogi orez egindako performancea, Pirata y Nahia.

Poesia: Amaia Likiniano "La Caja" eta Egiako 4. Saioa Arribas: Pailazo ikuskizuna eta laburmetraiaaren proiektzioa. Jabi Arkitektoa.

Construcciones efímeras con carton, adin guztientzat. Azoka: Kolonbiako Jakiak, Birziklatutako arroparen desfilea. Bertsolariak: Jokin Uranga.

SAGARDO EGUNA:

Porrontxo Jaiak 30 garren urtez ospatuko ditugu, eta urteurrena modu borobilean ospatu nahi dugu. Ekitaldi bereziak eta berriak antolatu ditugu eta horien artean da Porrontxoetako I. Sagardo Eguna. Ez dugu dastaketa soil bat egin nahi. Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearekin harremanetan gara eta datozen urteetan jarraipena izango duen zita garrantzitsua bilakatu nahi dugu hau. Horrexegatik, bere kartel propioa izango du Sagardo Egunak.